

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ABEZIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Lehiaketa publikoa, VI-10199 esparruko, "Abezia" izeneko, ehiza aprobetxamenduarena**

Lehiaketa publikoa, Abezia-VI-10199 ehiza esparruko ehiza aprobetxamenduarena, zeina Abeziako jurisdikzioko lurrek osatzen duten eta titularra, jabe taldearen ordezkartzan, Apodakako Administrazio Batzarra baita, administrazio batzar horretan interesdunen eskura dauden baldintzen arabera.

Hiru mila eta zortziehun (3.800) euro urteko, BEZa barne, da lizitazio oinarria. Gehiago eskainiz hobetu ahal izango da.

Behin betiko bermea esleipen zenbatekoaren ehuneko bost (ehuneko 5) izango da.

Ehiza esparruaren aprobetxamendu zinegetikorako errentamendu aldia bost (5) urtekoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko epea zortzi (8) egun naturalekoa izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

"Abezia" izeneko VI-10199 ehiza esparruaren aprobetxamendua esleitzeko, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak esparrua onetsi behar du aurretik, dagokion foru agindua sinatuta.

Abezia, 2019ko uztailaren 18a

*Lehendakaria*

**JUAN IGNACIO LEKUONA LABURU**